



255. zenbakia

• Urria 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria




Ostrukarena

Palestinaren gainean
galdetu eta...
“Ez dakit, ez dut
telebistarik ikusten”
izan zen erantzuna.
“Gainera, badira guda
gehiago: Siria, Sudan, Nigeria”.
Hauxe gizakiaren miseria.
Zer egin genezake?
Bada, bakoitzak ahal duena.
Zer pena!
Denek egiten, auzokoak, Europak, munduak,
ostrukarena.



Joxe Jabier Elizalde



Hautatu



komunikazioa

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkartea, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Euskal Komiki Eguna ekimena.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Ibaitik Itsasora martxa eskualdetik pasatu zen. Palestinarekin elkartasuna adierazi zuten herritar ugari. Egilea: Virginia Urdaniz.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urriaren 9an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Landa eskolak*

07

Ingurumena. *Liztor eltzegilea*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkartea*

10

Albisteak.

14

Ekimenak. *Ardi-ile moztailen txapelketa*

16

Berezia. *Berdintasun plana*

20

Elkarrizketa. *Inazio Sala, Beramendiko elkarteak 50 urte*



22

Aspaldiko kontuak. *Miguel Eugiri elkarrizketa*

25

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

27

Ardo freskoa. *Garai zailak*

28

Kirola. *Errugbi inklusiboa*

30

Elkarrizketa. *Ezpela euskara taldea*

32

Zer irakurri. *Euskal Komiki Eguna*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Abuztua*

Landa eremuko eskolak, txikitasunetik handiak

Landa eremuko eskolek lan ikaragarria egiten dute, handitasuna goraipatzen duen mundu honek jartzen dizkien oztopoak oztopo. Nafarroan, horiei aurre egiteko Landa Eremuko Eskolen Sarean bildu dira gehienak. Gure eskualdean Oihanzabal eskola dugu Basaburuan, 35 ikaslerekin eta sarean Leitzaldeko koordinazioaren barne dago. Eskolaren eta sarearen bitartez, txikien lanara eta beharretara hurbildu nahi izan dugu.

Jakina den bezala, gure eskualdean bi eskola ditugu. Oihanzabal, Jauntsaratsen, Basaburuan; eta, Larraintzar, Ultzaman. Biak kokatzen dira landa eremuan, beraz, baina ezberdintasunak dituzte. Larraintzarkoak 300 ikaletik gertu ditu Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako. Horregatik, ez da eskola txikia. Basaburukoa, bai, eskola txikia dugu: gaur, 35 ikasle ditu Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arte banatuta. Horregatik, maila ezberdinetako ikasleak bildu ohi dira gela berean. Larraintzarko

lagunen baimenarekin, Basaburuko eskola aipatuko dugu erreportaje honetan, eskola txikien metodologian, beharretan eta garrantzian gelditu nahi izan baitugu.

Oihanzabal, arriskuan?

Herriak hustutzen ari diren bezala, eskola txikiak ere arriskuan daudela esan dezakegu. Nafarroan, 2011tik 2022 bitartean sei eskola itxi dira, ikasle faltagatik. Zubieta, Anderaz (Abarzuzan), Figarol edo Sada dira horietako batzuk. Gure eskualdean,

Oihanzabalgo eskolak ia 80 ikasle zituenean duela zazpi urte. Gaur 35 dira. Ikasleen erdia baino gehiago galdu ditu, beraz. Hala ere, ixteko arriskutik urrun dago oraindik, izan ere, Nafarroan bost ikasle baino gutxiago izan behar dira legezkola bat ixteko, nahiz eta malgutasuna dagoen. Maite Rodriguez da zuzendaria: "Bertze hainbertze herrietako landa eskoletan oraindik ere gu baino ikasle gutxiago dira, hogeita bost, hogeit... eta gutxiago. Oraindik urrun gaude. Alde horretatik lasai gaude, badugu eskola urte askotarako".





Oihanzabalen gertatutakoa berezia da, Aizarozko fenomenoari lotuta baitago. Eskola izugarri hazi zen Aizarotz handitu ondoren. Herriaren proiektuaren ondorioz, bikote gazte ugari etorri ziren, eta haien seme-alabak eskolara joan zirenean egin zuen gora ikasle kopuruak. Orain, orduko ume horiek ere hazi eta eskola amaitu dute. Horregatik, ikasle kopurua bere honera itzuli da eta horretan mantentzen da gutxi gorabehera, Maite Rodriguez Oihanzabalgo zuzendariak azaldu digun bezala: "Bai joan den urtean eta baita aurten ere 35 ikasle egonen gara, eta, beraz, berdin mantentzen da. Ikusten dugu beste eskola handietan ere kopurua behera doala. Jaiotze tasa behera doa eta hori nabaritzen da. Sarriguren bezalako eskola handi batean ere gelak itxi dituzte".

Elkarrekin, indartsu

Oihanzabalgo eskolaren biziraupena ez dago arriskuan, beraz, eta, eskerrak. Ez al da eskola herri baten etorkizuna? Horrela uste du Rakel Fagoaga Leitzaldeko Herri Eskolen koordinatzaileak: "Herriko umerik gabe ez dago eskolarik eta eskolarik gabe ez dago bizitzarik herrian. Eskutik hartuta doaz. Herri batean eskola ixten bada herriaren biziraupena arriskuan gelditzen dela uste dut".

Nafarroako Landa Eskolen Sarearen parte da Leitzaldeko Herri Eskolen koordinazioa. Sarea hainbat zonaldeetan banatzen baita. Oihanzabalgoa, hain zuzen ere, Leitzaldekoaren barne dago Areso, Betelu, Goizueta eta Leitzarekin batera. Rakel Fagoaga: "Nafarroako 64 landa eskolak 13 zonaldeetan daude banatuta, bakoitzak koordinatzaile batekin edo birekin. Koordinatzaile guztiak Hezkuntza Departamentuko Landa eskolen ataleko arduradunarekin biltzen gara. Hortaz gain, zonalde bakoitzak ere bere sarea osatzen du eta bertako zuzenda-

**Rakel Fagoaga,
Nafarroako Landa Eskolen
Sarearen Leitzaldeko
koordinatzailea:**

**Landa eskoletan
egiten den lana
ikaragarria da eta
herriko, bailarako
edota Nafarroko
biziraupenerako
ezinbestekoak gara**

riak biltzen gara. Gure errealitate hori eta gure beharrak Hezkuntza Departamentura iristeko bidea da sarea". Landa eremuko errealitateari erantzuna emateko lanketa eta jarduera ezberdinak egiten dituzte: "Babes handia da sarea; elkarri laguntzen diogu, gure ezinak mahai gainean jartzen ditugu eta irtenbide egokiak emateko aukerak aztertzen ditugu. Landa eskolen ttikitasunetik gauzak aurrera eramatea zaila izaten da eta ttikiak elkartuta gauza handiagoak lor daitezke".



Oihanzabal eskola, Jauntsaratsen

Txikiek, lan handia

Oztopoak galdetuta, hauek dira eskola txikiek izaten ohi dituztenak: arreta eta babes falta; eta, nola ez, baliabide gutxi. Rakel Fagoaga: "Gaur egun, beste hainbat esparrutan gertatzen den bezala, kopuruearengatik hartzen dira erabakiak. Landa eskolak, orokorrean, eskola ttikiak gara eta gure eskoletako ikasle edota irakasle kopuruak ttikiak dira. Hortaz, gure egunerokoan beharrezkoak ditugun baliabideak ere proportzionalak izaten dira eta ez dira nahikoak". Txikiagoak izateagatik, gainera, ez dute lan gutxiago izaten: "Adibidez, landa eskoletako zuzendaritza taldeak askotan pertsona bakarrekoak dira, horrek suposatzen duen guztiarekin. Zuzendari, ikasketaburu, idazkari, administrari, irakasle, atezain eta abar luze baten lanak egin behar izaten ditu pertsona bakarrik".

Horregatik, haien lanari hurbiltzea eskatzen du Fagoagak: "Landa eskoletako errealitatea egitan hurbiletik ezagutu eta aztertzea gustatuko litzaidake. Ematen du ikasle gutxi ditugulako dena errazagoa dela baina ez da horrela. Landa eskoletan egiten den lana ikaragarria da eta herriko, bailarako edota Nafarroko biziraupenerako ezinbestekoak garela uste dut. Zer litzateke Nafarroa landa eremurik gabe?".

Gertutasuna, ikurra

Landa eskolako eskola txikiek dituzten oztopo eta zailtasunak aipatu ditugu orain arte. Baina badute asko eskaintzeko, esate baterako, txikitasun horrek berak eta haien koka-penak ematen dizkien aukerak, eta gertutasuna. Rakel Fagoaga: "Familia giroa dago gure eskoletan. Familiekin, herriarekin dugun harremana oso gertukoa da. Naturarekin kontaktu zuzena dugu; eskola ez da lau paretetara bakarrik mugatzen; kanpoan



dagoen guztia ere eskola da eta hori aukera paregabea da. Horretaz gain, ikasle kopuru txikiagoa dugu eskola handiekin alderatuta eta gehienetan adin ezberdinak elkartuta daude gure geletan. Horrek aukera handiak eskaintzen ditu ikasleen garapenerako”.

Maite Irigoyen Arribillaga eta Duma Pino Rica Etxalekun bizi dira, eta, nahiz eta Irurtzungo eskola dagoen, handiagoa, Miguel semea, lau urtekoa, Oihanzabalera eramateko hautua egin dute. Maite Irigoyen: “Jauntsaratsen bizi izan gara denbora frankoz. Beraz, Miguelek eskola ezagutzen zuen, arratsaldero bertako parkera joaten ginelako, besteak beste. Gainera, eskola txikia da eta, esate baterako, handiagoak txikiagoekin aritzen dira jostaketan, irakaslearen eta ikasleen arteko harremana estuagoa eta gertuagoa da. Horregatik guztiarengatik pentsatu genuen erosoago egonen zela horrelako giro bilduago batean”. Zentzu horretan, ez dira damutzen: “Asko gustatu zaigu, herri batean bizi garelako eta herri eskola bat delako. Bertako gauzak egiten dira: mendira ateratzen dira, tximeletak hartzen dituzte, zapaburuak, putzuetan salto egitera doaz, landa giroak eskaintzen dituen gauzak egiten dituzte. Miguelek oso-oso ongi pasatu du”. Duma



**Duma Pino Rica,
Oihanzabalgo ama:**

**Imozko umeekin
Basaburuko eskola
beteko litzateke eta
Irurtzunen karga
arinduko litzateke**



Maite Irigoyen eta Duma Pino
Miguel eta Maddirekin

Pino: “Gainera handiekin gelditzen zen bazkalondoren eta hori oso ongi zetorkion euskara gehiago lantzeko eta eskolara joateko errutina hartzen joateko. Baina hurrengo ikasturtean zailagoa izanen dugu”. Izan ere, esan bezala, oso pozik egon dira zentzu horretan, baina egin beharreko sakrifizioa handia da. Basaburua egokitzen ez zaienez, ez dute garraiorik ezta jangelako diru-laguntzarik. Apirilean Maddi alaba izan zuten, Miguelen arreba txikia, eta zailagoa zaie ordutegi ezberdinak uztartzea. Horregatik, ez dakite hautu horrekin jarraitzeko aukerarik izanen duten: “Aurten bi errutina oso ezberdin izanen ditugu Miguelen bazkaltzeko ordua Maddiren siesta ordua izanen delako. Horregatik zailagoa bihurtzen da. Jangela diruz lagunduta izanen bagenu Miguel bertan geldituko zen eta ondoren, 16:00etan, siestaren ondoren, hartuko genuke. Momentuz, konpontzen dira baina horrela jarraituz gero Irurtzunera aldaketa egin beharko dutela esan digute: “Haur hezkuntza ez denez derrigorrezkoa ez dago hainbeste arazorik. Arratsaldeetan ezin baduzu eraman ez delako joaten eta listo. Baina Miguelek Lehen Hezkuntza hasiko du hurrengo urtean eta horrek kaleitsu batera eramanez gaitu, erremediorik gabe Irurtzunera eraman beharko dugu”.

Imoztarak Oihanzabalera joanen balira?

Pinok eta Irigoyenek beren egoeratik bakarrik ez, uste dute bailarendako ere onuragarria izanen litzatekeela Imozko umeak Oihanzabalera joanen balira. Duma Pino: “Irurtzunen gainezka daude eta hori da Miguel bertara eraman nahi ez genuen arrazoietakoa bat. Imozko umeekin Basaburuko eskola beteko litzateke eta Irurtzunen karga arinduko litzateke. Irurtzunen hamar ume ez dira ezer, baina Oihanzabalerako asko da, kasik eskolako herena litzateke”. Despopulazioaren kontra lan egiteko aukera bat dela uste du Maite Irigoyenek: “Jauntsaratsen, adibidez, hiru ikasle zeuden herrikoak bertakoak zirenez ez zietela jantokia diruz laguntzen. Azkenean, Jauntsarats despopulazio arriskuan dagoen herria dela argudiatuta lortu dute, haiek esfortzua

egiten ari direlako Jauntsaratsen gelditzeko. Baina beraiei Oihanzabal egokitzen zitzaizen gutxienez. Guri ez dagokigunez, ez dakit ezer egiterik dagoen”. Ez dute esperantza handirik, haien aurretik Etxalekuko bertako bizilagunen bat ere saiatu izan da. Irigoyen: “Gainera, Imotzen herri batzuk Irurtzunetik gertuago daude. Etxalekun Oihanzabaltik gertuago gaude, baina Goldaratzen Irurtzunetik gertuago... igual beraiei Irurtzun hobeki datorkie. Zonifikazioan aldaketa egitea zaila da”. Horregatik, diru-laguntzen bat bilatzen saiatu dira, udalari eta Hezkuntzari galdetuz, baina ez dute lortu, haien hautua denez haien erantzukizuna dela erantzun baitiete.



Pulunperen erredakzioko intsektu artisau hori

Intsektu soinu bat entzun genuen duela zenbait hilabete Pulunpe aldizkariaren eta Esan Erran irratiaren erredakzioko teilatupean. Eta hara non ikusten ditugun buztinezko pitxer ñimiñoak elkarri itsatsita leiho ondoan, eta liztor luze eta meharra inguruan. Sarean irakurri dugunez, liztor eltzegilea da gure bizilaguna. Izenak dioen bezala, artisaua da intsektu hau, eta buztinezko eltze txikiak eraikitzen ditu arrautzak barruan jartzeko.

Eumeninae familiako intsektua da, baina 'liztor eltzegile' gisa da ezaguna. Liztor mota honen 200 genero desberdin baino gehiago ezagutzen dira, horietako gehienak harrapakari bakartiak dira, eta beraz, arraroa da liztor honen plagak sortzea –argazkiko liztorra ezaguna egin bazaizu etxe inguruan duzulako, laaasai!–. Pertsonentzako ez dira batere arriskutsuak, eta gainera, onura bat ere badakarte haiekin: ehizerako duten gaitasunagatik, armiarman eta bestelako intsektuen plagak ekiditen dituzte.

Kolore beltz edo marroixka izaten dute liztor eltzegile gehienek, baina lerro horixka, zuri edo gorrixkak ere izan ditzakete. Intsektu honek, esan bezala, buztin eta urarekin kabiak eraikitzen ditu bertan arrautzak jartzeko, baina badira lurreko edo zureko zuloak eta beste liztor batzuen kabiak aprobetxatzen dituztenak ere. Normalean, emeen gelaxkek tamaina handiagoa izaten dute, elikagai kopuru handiagoa izaten dutelako. Liztor amek espezie desberdinetako beldarrez, zenbait kakalardoren larbez eta armiarma txikiz elikatzen dituzte kumeak.

Gainerako liztor eta intsektu gehienek bezala, polinizazioan paper garrantzitsua jotzen dute liztor eltzegileek ere. Espezie askotako loreak bisitatzen dituzte nektarra edateko eta hegan egiteko energia

“**Kanpoan buztina bildu, eta haien barailekin eraikitzen dituzte eltze txikiak diruditen kabiak**”



▲ Liztor eltzegileen kabiak



▲ Liztor eltzegilea

biltzeko. Liztorren mingaina, kasu askotan, 4 mimimetroko luzerara iristen da. Liztor arrek hiruzpalau asteko bizitza izaten dute, baina emeen kasuan, bi edo hiru hilabete bizitzera iritsi daitezke.

Liztor eltzegileen kontu xelebre bat zera da, zenbait akarorekin duten harreman estua. Izan ere, zenbait espezie akaro genero zehatz batekin lotuta daude, liztorrek sabel aldean duten zuloan ostatu ematen baitie akaro horiei. Arrek ugalketan emeei pasatzen diete akaro hori, eta hauek kabetara eramaten dituzte kasu askotan. Hala ere, dirudienez, ez diete inongo kalterik eragiten akaro hauek. Beste animalia askoren sinbiosi harreman horiek onurak ekartzen dizkie bi animaliei, baina, liztor eltzegileen kasu honetan, ez da ezagutzen harreman horrek liztorrei onurarik ekartzen ote dien.

Kabiak, liztor eltzegileen artelanak

Liztor mota honen ezaugarri bereziena bere kabia da. Kanpoan buztina bildu eta kabia eraiki nahi duten tokira garraiatzen dute. Haien barailekin eraikitzen dituzte eltze txikiak, hormetan, sabaietan eta babestutako tokietan. Liztor baten bizi zikloan 10 eta 15 kabi artean eraikitzaera iritsi daitezke. Oso ohikoa da etxe inguruetan liztor honen kabiak ikustea, beraz, adi egon, ziur inguruan baduzuela artisau honen artelanen bat eta!

Urdazubiko lezeak eta monastegia, hile honetako protagonistak

Urdazubira egindako txangoa kontatuko dizuegu ale honetan. Eta, gainera, Euskal Herriko erdigunera egindako mendi irteera eta Arteta inguruan emandako paseoren irudiak ere ekarri dizkizuegu.

Iraileko txangoak Urdazubi herria ikustera eraman gintuen. Herrian bertan dagoen monastegia eta nahiko hurbil dauden lezeetara egin genuen bisita. Bi autobusetan iritsi ginen Urdazubira, lehenengokoak monastegia ikustera sartu ziren eta bigarrenengoak leze-zuloak ikustera joan ziren.

Autobus bakoitzekoak bi taldetxotan banaturik sartu ginen lezeetara, 15 minutuko tartearekin.



Leze zuloa argiztatua dago, kolore desberdinekin, egokiago nabaritzeko barneko edertasuna

Urdazubiko lezeak, Ikaburuko haitzuloak bezala ere ezagutzen dira, duela ehunka mila urte sortuak, Urtxume, beren barnetik doan erreka-txoaren higadurari esker.

Gidak han gertatutakoaz mintzatu zigun eta esan zigun paleolitiko garaian jendea bizitu zela erakutsi dutela bertan jasotako arrastoek. Askoz berriago, 1808an, indepen-



Lezeen sarreran beste taldeari itxoiten

dentzia-gerrako guduetatik ihes egiten zuten pertsonak babesleku gisa erabili zuten eta geroztik egin dira ikerketak bertan. Urdazubiko udalak 1965etik aurrera aipatzen du erakarpen turistiko gisa.

Monastegia ere bi taldetxotan ikusi genuen, erakusketa bi zatitan banatu dutenez, bakoitza bere zatia ikusi ondoren bestea ikustera pasatu zen. Beheko solairuan klaustroa

dago, XVII. mendearen amaierakoa. Bertan Zubi-Arte erakusketa ikusteko aukera izan genuen, pintura, eskultura eta hainbat arte-adierazpen biltzen dituen erakusketa. Gaur egungo euskal margolarien eta eskultoreen 300 lan baino gehiago, Zumetaren batzuk tartean.

Lehen solairuan museoa dago, bertan, monastegiaren historia-
ren interpretazio zentroa bisita



Zubi-Arte erakusketa begiratzen



daiteke erromesen ospitalea izan zenetik eta Urdazubiko historia eta bizitza errepasatuz. San Salvador monastegia IX. mendean sortu zen, erromes ospitala bezala, bere elizarekin. Gero, Premonstratense ordenarena izan zen. Bere abadeek hitza eta botoa zuten Nafarroako Gorteetan. Bi sute handi izan zituen: 1526an (Nafarroak independentzia galdu zuenean) eta 1793an (Konbentzioaren gerra). Azken sute horretan 9.000 liburu baino gehiago zituen liburutegia erre zen. 1839tik aurrera (Mendizabalen desamortizazioaren garaian), premonstratarrek eraikina abandonatu zuten, eta eliza parrokia bihurtu zen.

Bazkarirako Zugarramurdira joan ginen, Azketa jatetxera, beste behin ere, nahiko eta bikain eman ziguten, alde aurretik eskatua zegoena. Ondoren, arratsaldeko lanak: batzuk musean, besteak herriari bisita egin eta beste batzuk Zugarramurdi-ko lezeetaraino joan ziren.

Itzulerako orduan autobusak hartu eta etxerantz etorri ginen, beste egun eder bat elkarrekin pasa ondoren.

Bestetik, iraileko paseoak bi mota-takoak izan dira eta aurrerantzean hala izatea ikusten da.

Batetik, mendi ibilaldiak (4 ordukoak) izanen dira. Oraingoa, Euskal Herriko erdigunera Goñitik abiatuta.

Bestetik, paseo kulturalak (2 ordukoak); oraingoan, Arteta inguruan izan zen, museo etnografikoa eta Artetako iturburua ikusi genituen, besteak beste.

Gero bi taldeak elkarrekin bildu ziren bazkaltzeko, lehen bezala.

Joan den hilabetearen proposatutako ekintzak: Yoga, Gimnasia eta Mus txapelketa hasiak daude esandako lekuetan, hiruetan nahiko jendek izena eman duelakoz.

Hurrengoan Elizondoko ferietara joanen gara txangoan. Paseoei dagokionez, berriz, mendi ibilaldia



Txaruta mendira izanen da eta paseo kulturala, Belate eta inguruetan. Euskara talde bat ere sortu nahi genukeenez, galde egin da bazkideen artean, ea nahiko jende apuntatzen den!! Hurrengo alean izanen duzue hauen berri. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Berriz irekiko du Aizarozko ostatuak

Udan itxirik izan da tamalez herritarrendako eta kontzeju berria ostalari berrien bila lanetan aritu da geroztik. Leihaketa-rako epea zabaldu zuten iraila hasieran eta, azkenean, lortu dute ostatua nork irekiko duen. Bi ahizpa dira eta ostalaritzan eskarmentua badute, baita gure eskualdean ere, orain arte Eltzaburuko ostatua kudatu baitute. Inaugurazioa urria bukaeran izanen da.



Basaburuko eguneko zentroa udaberrian egon liteke martxan

Txokolateroren etxeko obrak behin amaituta, Basaburuko Udalak Iniciativas para la Tercera Edad S.L. enpresa kontratatu du eguneko zentroaren kudeaketa martxan jartzeko behar diren lanak egiteko. Horrela argitaratu du Udalak hilero banatzen duen buletinean.

Enpresak proiektua aztertu eta hura abian jartzeko zer eredu eta ezaugarriak diren aproposenak ikusiko du. Egin beharko dituen lanen artean: plan ekonomikoa, tarifak eta diru kontuak finkatzeko; kudeaketa eredu ezberdinak aztertu eta egokiena ezartzeko prozesua aurrera eraman; eta, zentroaren antolaketa azpiegitura zehaztu. Garatu beharko dituzten artean ere izanen dira langileen ezaugarriak (titulazioa, ratioak eta lanen banaketa), hautaketa probak eta kontratazio oinarriak, zentroaren erabiltzaileen profila eta aurreikusten den plaza kopurua, garatuko diren programak eta jarduera plana, garraio eredu eta zentroan garatuko diren beste zerbitzuen oinarriak. Enpresak 9 hilabeteko epea du honetarako.





Eskualdeko bi gaztandegi, Artzain Gazta Lehiaketan sarituak

Irailaren 14an Irurtzungo eta Arakilgo XII. Bertako Ganadu Azokan egin zuten Artzain Gazta lehiaketa, eta Egozkueko Loperena eta Goldarazko Arteta gaztandegiak izan ziren sarituak bertan.

Giro ederrean igaro zen igandean Irurtzunen azoka, baita Artzain Gazta lehiaketa ezaguna ere. Lehiaketako hiru irabazleetatik bi eskualdekoak izan ziren. Atezko Egozkue herriko Marta Loperena izan zen horietako bat, Loperena gaztandegikoa. Beste saria Imotza joan zen: Goldarazko Arteta gaztandegia ere saritua izan zen. Iosu Olló gaztea da gaztandegiaren sortzailea.

Bada, zorionak eskualdeko sarituei!



Pasa zaitez autobusera eta gozatu bidaiaz

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



kaixobusa.nafarroa.eus

NAVARRA ‡ NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Jendetza, Larraintzarko etapan Ibaitik Itsasora Palestinaren aldeko martxan

Irailaren 15ean iritsi zen Larraintzarrera eta jendetza bildu zen eskolan egin zioten harreran. Baita bazkaltzeko ere, 60 pertsona, bentan sartu ahal ziren guztiak. Zazpi herritarrek prestatu eta zerbitzatu zuten bazkaria. Baina ehunka pertsonak egin zuten Palestinaren aldeko ibilaldia Berriosusotik Larraintzarrera. 9:00etan ateratu ziren Mintxo txistularien doinuek lagunduta eta seigarren etapa honetan 17 kilometro egin zituzten Larraintzarreraino. Bidean, Ataburun, atezarrak zituzten esperoan, Atezko Udalak lagunduta bertako herritarrek arduratu baitziren horniduraz; eta 11:00etan iritsi ziren martxalariak. Hurrengo geldialdia Gelbentzun izan zen, han odietarrak arduratu ziren parte hartzaileei hornidura eskaintzeaz.

14:00etan iritsi ziren Larraintzarrera eta harrera egin zitzaion eskola eta Osasun Etxearen artean dagoen belardian, aurreko batekin eta bertso eskolako umeek egindako bertsoarekin. Udalak ere parte hartu zuen. Eta ondoren, aipatutako bazkari jendetsua. Benta tokirik gabe gelditu zen 60 pertsonak erosi baitzituzten txartela guztiak.

Bertso eskolako ikasleek kantatutako bertsoa:

HAUR ETA HELDU IKUSTEN DIRA
BERTAN PILA BAT BIKTIMA
HORI GUZTIA IKUSI ETA
EMATEN DIGU LASTIMA
ZER BIZI DUTEN PENTSATZEAKIN
APURTZEN ZAIGU ARIMA
IBILALDI HAU ZUENGATIK TA
ZUEN ALDE DA JAKINA
ONGI ETORRI LARRAINTZARRERA
ETA GORA PALESTINA!

Arratsaldean, Leontzio akordeolariak alaituta kantuz ere aritu ziren bazkalondoan. Aizarozko Iker clownak ere antzezalana eskaini zuen eta Mexikortxoren kontzertuarekin amaitu zen eguna. Lo egiten 18 pertsona gelditu ziren Larraintzarko frontoian, udalak aukera eskaini baitzuen.

Ibaitik Itsasora, Palestinaren aldeko martxa, irailaren 10ean ateratu zen Tuteratik eta 20an amaitu zen Hendaian. Ekimenetik azaldu zutenenez, "Ebro ibaitik Tuteran Hendaierainoko ibilaldia Euskal Herria eta Palestinaren arteko elkartasunaren adierazgarri da. Eta bere herriak Palestinako lurralde historikoan ibaitik itsoraino askatasunez, berdintasunez eta justiziaz gozatzeko duen bidezko nahia aldarrikatzen du".





Gartzarongo pilota txapelketaren finalak, azaroaren 1ean

Uztailan hasi zen txapelketa eta ohi bezala, udazkena-rekin amaituko da. Final zortzirenak jokatzen ari dira Pulunpe ale honen itxieran; eta, urriaren amaieran, 25eko eta 26ko asteburuan izanen dira finalaurrekoak; eta, azaroaren 1ean, finalak eta sari banaketa.

Aurten edizio berezia izan da, 40 urte bete dituelako txapelketak. Horregatik, kamiseta ederrak atera dituzte.

Ohikoa den bezala, behin Gartzarongo pilota txapelketa amaitzen dela, pilota goxoko txapelketa abian jartzen dute Imozko eta Basaburuko Kirol Batzordeak. Lehen, bigarren eta hirugarren mailan jokatzeak aukera izanen da aurten ere eta kategoria bakoitzean 12 bikotek eman dezakete izena gehienez. Haien webgunean, basaburua-imotz.gune.app/kirolak informazio gehiago.



Gizarte zerbitzuek 40 urte

Gizarte Zerbitzuen 40. Urteurren ospakizunean, eskertza eta aitortza jaso genuen oinarritzko gizarte zerbitzuetan lan egiten dugun profesional guztiek, Ultzamaldekoko profesionalak ere bertan egon ginen.

Guztien izenean, Txaro Larrayoz, familia langilea, izan zen oholtzara igo zena.



Ultzamaldekoko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitatea



Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik kexa bat 40. urteurrenaren ekitaldiaren harira:

Oso haserre gaude euskara ez zelako inondik inora agertu Gizarte Zerbitzuen 40. urteurrenaren ekitaldian. Karteletan ez eta oroigarrian ere ez. Kexa bat egin dugu langile moduan eta politikoki ere erantzukizunak eskatuko direlakoan gaude.

Ultzamaldekoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea



Kike Paesa itsasoarra, Euskal Herriko txapelketan

Irailaren 27an Euskal Herriko ardi-ile moztaille txapelketa jokatu zen Abadiñon, eta eskualdeko ordezkari bat izan zen bertan: Itsasoko (Basaburua) Kike Paesa moztaillea. Euskal Herriko kanporaketaren ondoren, nazioarteko txapelketan ere parte hartuko du euskal selekzioak lehenengoz, zazpi herrialdeak barne hartzen dituen taldearekin. Txapelketaz, eta oro har, ardi-ile moztailleen lanaren eta bizitzaren inguruan solastu dugu Paesarekin.

"Euskal selekzioaren ofizialtasuna lortu da kirol honetan, eta horretarako jarri ziguten baldintzetako bat zen Euskal Herrian txapelketa ofizial bat antolatzea", azaldu du Paesak. Nazioarteko txapelketan parte hartzeko bide horretan egin da Abadiñoko txapelketa, eta Itsasoko moztailleak dioenez, Europako beste selekzio batzuen partetik babes handia jaso dute. Berak ez du Zeelanda Berrian datorren urtean ospatuko den munduko txapelketan parte hartuko, aurrez egiten diren kanporaketetan Abadiñon besterik ez baita izan, eta beraz, ez du puntuaketa nahikorik. Dena den, ez du inoiz helburu hori izan itsasoarrak,

tokiko txapelketa txikietan parte hartu arren, ez baita txapelketa handietan gehiegitan aritu. Kirol gisa baino, bizitzeko modu gisa ulertzen du ardi-ile mozte Paesak.

Irunberriko moztaille taldea, aitzindaria

Bere hastapenen inguruan galdetu diogu Paesari, eta honela mintzatu da: "30 urte daramtzat ardi-ile mozten. 90. hamarkadan hainbat ikastaro egin ziren Nafarroan, eta Irunberriko lauzpabostek eman zuten izena. Irunberriko talde hori izan zen gaur egun nagusi den ardi-ile mozteko teknika erabiltzen lehe-

nengoa Euskal Herrian eta estatu mailan". Irunberriko taldeko kide zen Paesa, haiekin ikasi zuen ardi-ile mozten, eta geroztik, horretan dihardu buru-belarri.

"Duela ehun urte baino gehiagotik Zeelanda Berrian, Argentinan eta beste herrialde askotan teknika honekin mozten dute ilea, baina, esan bezala, Nafarroan Irunberriko taldea hasi zen modu honetan. Angosaxoiek asmatutako teknikak dira, erdi makurtutako posturan mozten da ilea, ardia eserita jarri eta pasadak egiten dizkiozu", azaldu du teknika.

Paesak pasioz bizi du bere ofizioa.





“Lan tradizional bat da, landa eremuarekin ere lotura estua duena, eta nik esanen nuke lana ez ezik, bizitzeko modu bat ere badela ile moztaille izatea”

“Azkenean, kirolaren eta lanaren arteko zerbait da, lan tradizional bat, landa eremuarekin ere lotura estua duena, eta nik esanen nuke lana ez ezik, bizitzeko modu bat ere badela ile moztaille izatea”, dio. Irunberriko kuadrilaren jatorrizko espiritua bizirik mantendu dela dio, nahiz eta denborarekin talde gehiagotan banatu diren hasierako kideak.

Bizitzeko eta erresistentzia egiteko modu bat

Itsasorarrak gogoan duenez, garai onenetan, Irunberriko plazan 30 moztaille baino gehiago elkartzen ziren. “Gure artean banatu egiten ginen, bat Carcastillora, bestea Ultzamara, bestea beste toki batera... horrela izaten zen”. Martxoan hasten da denboraldia eta uztaile arte luzatzen da, gutxi gorabehera. Dioenez, Nafarroa ile moztearen paradisa da, denboraldia asko luzatzen baita: neguan zenbait artaldetan ilea mozten segitzen dute, eta ardi latxari bitan mozten diete ilea.

“Aurreko batean, ardi-ilea mozten hasi den gazte batek zera galdetu zidan: ‘Kike, ez duzu uste duzu ile moztaille izatea gaur egun badela,

nolabait, borroka politikorako forma bat?’. Gogo eta motibazio ikaragarriarekin ari den gaztea da, nire hastapenak gogorarazten dizkit. Eta, uste dut arrazoia due-la: azkenean, hau, lan soil bat baino gehiago, bizimodu bat da. Nik, nire etxea ilea-mozten egin dut: erdi-eroria zegoen eraikin zaharra erosi nuen, denboraldian ardi-ilea mozten lanean aritzen nintzen, eta denboralditik kanpo etxea eraikitzen, beste ile moztaileren laguntzarekin. Moztaille talde polita etortzen zen lanera, eta hurrengo urtean, horietako beste norbaitek etxea egin nahi bazuen, guztiak joaten ginen bere obrara lanera”, dio. Paesak nabarmentzen duenez, bizitzeko eta mundua ikusteko modu bat da moztaille izatea, gaur egungo kode eta moduetatik desberdina dena.

Txapelketen mundua

Euskal Herriko selekzioaren onarpenerako hainbat baldintza jarri zituen nazioarteko antolakundeak, besteak beste, tokiko txapelketa ofizial bat antolatzea. “Bizkaiko ile moztaille bat hasi zen kontua mugitzen, txosten bat aurkeztu zuen nazioarteko kontzilioan, eta onartu egin zioten. Selekzioak nazioarteko txapelketan parte hartu ahal izateko tokiko txapelketa ofizial bat antolatu beharra du aurrez; tokiko ardi arraza bat gutxienez izan; eta selekzioa babestuko duen gobernu bat atzetik eduki”, azaldu du Paesak.

Hiru modalitate desberdin daude txapelketa hauetan: guraizeekin eta makinarekin ilea moztea, alde batetik, eta bestetik, ilaginena – gaztelaraz ‘lanera’, artilea pilatzen dutenak, zati zikinak kendu eta zakuetan sartzen dutenak–. “Hiru elementu ebaluatzen dira txapelketetan: denbora, moztetaren kalitatea, eta errepasso kantitatea”. Izan ere, ilea mozten ari diren bitartean



Kike Paesa eskilatzen ▲

epaileak ilea mozteko egiten dituzten ‘paseak’ kontatzen dituzte, eta gehienez ardi batekin 48 pase egin ditzakete. “Errepasoak zigortu egiten dira txapelketetan”, dio Paesak. Dioenez, Euskal Herrikoak gai dira 200 edo 250 ardi ingururi ordu batean ilea mozteko, baina errekorra orduko 800 bat arditan dago.

Erreleboaz galdetuta, landa eremu-ko beste ogibide askorekin gertatu den bezala, zailtasunak dituztela dio itsasorarrak. “Errelebo gutxi dago, eta gazte gutxi sartzen da mundu honetan. Tira, Gipuzkoan eta Bizkaian ari dira bakar batzuk ikasten, eta oso motibatuta ari dira, baina ez da orokorra”, dio. Azken hamarkadetan, gainera, aldaketa handiak izan ditu ogibideak, izan ere, atzerriko enpresa handiak eskua sartzen hasi dira, eta eskulan merkea dakarte kanpotik ile mozte denboraldirako. “Atzeritik enpresari handiak etortzen hasi ziren abeltzaintzaren handitzearen garaian, langile talde handiak ekartzen zituzten beste herrialde batzuetatik prezio merkeagoetan aritzeko... hemengoari eusteko borrokan ari gara gu, erresistentzia gara, nolabait”, amaitu du.




Berdintasun plana

Ultzamaldean berdintasuna sustatzeko III. plana

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aurtengo ur-tarrilean hasi zuen berdintasun plan berria diseinatzeko prozesua. Izan ere, bigarren planaren indarraldia 2018tik 2022ra bitartekoa izan zen, eta beste urte betez luzatu zen.

Elkarlana oinarri izan duen eraikuntza kolektiboko prozesua izan da, saio eta bilera desberdinez osatua, zeinetan herri eragile, norbanako, udaletako zinegotzi eta udal eta mankomunitateko langileek parte-hartu duten. Prozesuak urrian izan du bere amaiera, Mankomunitateko juntak urriaren 2an onartu baitu berdintasunerako III. Plana.



Plan berri honen indarraldia 2026tik 2032ra bitartekoa izango da eta bere ezaugarri nagusien artean sinpletasuna, ulergarritasuna, eraginkortasuna eta konpartitua izatea daude. Izan ere, ez da soilik Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen berdintasun plana, Mankomunitatea osatzen duten udalen plana ere badelako.

Jarraian, ondoko orrialdean, planaren faseak eta erronkak dituzue.



Ultzamaldeko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitatea


ULTZAMALDEAN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEKO III. PLANA

(2026-2032)



ULTZAMALDEAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO III.PLANA

SINPLEA - ERAGINKORRA - ULERGARRIA - KONPARTITUA



1

ERRONKAK

2

ULTZAMALDEKO ERAKUNDEAK BARRUTIK ERALDATZEA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREKIN AMAITZEA

HELBURUAK

- a** Berdintasuna sustatzeko baliabideak eta gaitasuna handitzea.
- b** Administrazioaren egiteko moduetan genero-ikuspegia txertatzea.
- c** Berdintasun politikak garatzeko elkarlanerako espazioak egonkortzea.

HELBURUAK

- a** Indarkeria matxistaren aurka herritarrekin sentsibilizazioan, prebentzioan eta erreparazioan lan egitea.
- b** Indarkeria matxistaren kontrako Ultzamaldeko eta Nafarroako zerbitzuak koordinatu eta hobetzea.
- c** Indarkeria matxista bizi izan duten emakumeen erreparazioan lan egin eta zerbitzuak ugaritzea.

3

EMAKUMEEN BIZIBALDINTZAK HOBETZEA

4

BERDINTASUNA ERAIKITZEKO HERRITARRAK ETA ERAKUNDEAK INPLIKATZEA

HELBURUAK

- a** Enpleguen eta zerbitzuen irisgarritasuna bultzatzea.
- b** Zaintza lanak birbanatzea eta zaintzaileen baldintzak hobetzea.
- c** Emakumeen kolektibo ezberdinentzako ahalduntzerako programak egonkortzea.

HELBURUAK

- a** Haur, gazte eta familiekin berdintasuna bultzatzea.
- b** Genero-rol eta estereotipoak apurtzen dituztenak babestu eta saretzea.
- c** Mutil eta gizonekin berdintasuna eraikitzea.
- d** Herritarrak berdintasunean inplikatzea.

NOLA NEURTUKO DA **BETETZE MAILA**?

- **Urtero:** urteko programaren betetze maila neurtuko da.
- **2029an:** erdiko ebaluazioa helburuen betetze maila neurtzeko.
- **2033an:** planaren indarraldia amaitzean kanpo laguntzarekin amaierako ebaluazioa.



Dantza afrikarrak
Etxalekuko pestetan



Ultzamaldeko herri kirol taldea Larraintzarko bestetan



Xake txapelketa
Etxalekuko pestetan



Levelibular zirkoa Lantzen



Arraizko bestetan, abuztuaren 17an



Apostua Zenozko bestetan



165 lagun elkartu ziren
bazkaltzen Etxalekun



Arraizko Edelweiss
abeslariaren kontzertua Orgin



Maika Iraizoz harria jasotzen
Eltzaburuko bestetan



Andoni Gaskue eta Reginak bota zuten
txupinazoa Larraintzarren. Regina urte
gehien dituen herritarra da



Atetz Palestinarekin



Herriko gazteak Larraintzarko bestetan



Gartzaron



Ibaitik Itsasora ekimena eskualdean



Beramendiko elkarteak 50 urte bete ditu

Mende erdia egin du Beramendiko elkarteak eta ospatzeko kideak bazkari batean bildu ziren inguruko lagunekin. Izan ere, bost hamarkada ondoren, bizi-bizi jarraitzen du eta 28 sozio dira. 1975ean, orduko gazteek ilusioz jarri zuten martxan biltzeko toki bat eta, gaur, erabilera aldetik ere sasoian dago. Inazio Sala Iribarrenekin bildu gara. Bera izan zen fundatzaileetako bat eta elkarteko lehenengo presidentea.

Inazio Sala Iribarren Beramendin jaio zen duela 72 urte. Ondoren, bost urte zituenetik bederatzi bete zituen arte Latasan bizi izan zen. Baina Basaburura itzulera egin zuten eta ordutik Udaben bizi da. Eltzaburuko eta Ilarregiko guraso ultzamarrek etxea erosi baitzuten bertan: *Kiliminzar* etxea. Ezkondu zenean bere etxea egin zuen, hau ere Udaben, eta *Hegoaldekoa* izena jarri zion, baina alferrik, denek *Casa Sala* esaten baitiote. Sala, gainera, hasieratik egon zen Beramendiko elkartearen sortzeko proiektuan eta lehenengo presidentea izan zen. Berak kontatu digu nola egin zuten.

Duela 50 urte sortu zenuten Beramendiko elkartearen zergatik?

Gazteek ez zuten biltzeko tokirik. Lagun bat genuen, Biurarenatarren lehengusua, Ramon Barrenetxea, eta Tolosan bazuten elkarte bat. Oso laguna genuen, asko etortzen zen, eta hark hasi zitzaigun esaten zergatik ez genuen soziedade bat egiten, eta animatu ginen. Lur zati bat erosi genuen eta lanarekin, lan handia egin baikenuen, sozioen artean egin genuen elkarte. Lurra Sabino Nuini erosi genion. Horrelaxe hasi ginen, gauza aurrera atera zen eta hemen gaude 50 urte ondoren.

Esan duzun bezala lan handia izan zen...

Bai, baina gogoekin geunden eta ongi atera zen.

Nor zegoen ekimenaren atzean, zurekin batera?

Hogeita hamarren bat izanzen ginen orduan. Orain hogeita zortzi gaude. Zoritxarrez batzuk joan dira baina gazteak ere sartu dira, eta kopuruan berdintsu gaude. Udabeko eta Beramendiko gazteak sartu ginen eta gaude. Kontzeju bera osatzen dugunez bi herrietakoak gara.

Nola izan zen elkartearen martxan jarzea?

Esan bezala, elkartearen altxatzeko zimentuak jartzen elkarteko kideak aritu ginen. Eta gero altxatzeko igeltsero bat hartu genuen, baina asko sozioen artean egin genuen. Dirua ere

jarri genuen, dena batera jarri ordez, hiru bat alditan jarri genuen, behar zelarik. Hor ere, denok ez geunden egoera berean. Gazte batzuk ikasten ari ziren, beste batzuk zerbitzu militarra egiten, eta, horregatik, bakarren batzuek dirua aurreratu behar izan zuten. Gero itzuli zitzaion, noski, baina laguntza hori eman zuten.

Orduko Udalaren edo Administrazioaren laguntzarik izan al zenuten?

Ez, dena gure artean egin genuen. Badira beste batzuk agian eskoletan edo udal eraikinetan edo lurretan egin direnak baina guk zerotik jarri genuen martxan. Hau elkartekoa da dena, herriak ez du zer ikustekorik hemen.



Inazio Sala, Beramendiko elkarteko atarian ▲



Pozik geratuko zineten behin marxan jarrita?

Oso pozik. Geroztik asko berritu da. Teilatua, adibidez, eta obrak egin dira.

Anekdotak ugari bilduko zenituzten, 50 urte hauetan...

Bai, bai, egin izan dugu afari on bat, bazkari on bat edo beste (barreak). Pasa ditugu ratoak, bai. Baina ez zait okurritzen kontatzekorik (barreak).

Bazkideen bitartez funtzionatzen zuen hasieratik?

Urtero batzarra egiten da eta hiruzpatala lagun ateratzen dira bozken bidez. Presidente, almageneroa, idazkaria eta horrelakoak betetzeko. Gastuak ordaintzeko kuota bat dugu, 120 eurokoa urtean. Eta gero edariekin ere diru pixka bat ateratzen da eta, horrela, normalean urtero sobratzen da eta gordetzen dugu behar dugunerako. Elkarrekin prezioak merkeagoak izaten ditu eta hori oso ona da asko biltzen garenondako. Orduan ongi dago urtean kuota bat jartzea. Jendea kontent dago eta ez dago arazorik momentuz.

Norbait sartu nahi badu aukerarik badago?

Bai, arazorik gabe. Normalean herri-

“ Kanpokoek
esaten dute,
Beramendiko
soziedadea
bezala gutxik
funtzionatzen
dutela ”

koak gara, Udabe eta Beramendikoak. Gazteei ere, sartu nahi badute, sarre-
ra ordaintzeko erraztasunak ematen
zaizkie. Hilean zatikatuta ordaintzeko,
adibidez. Baina nahi duenak batean
ordaintzen du.

Nola aldatu da 50 urte hauetan?

Eraikuntza asko aldatu da. Lehenago
uralita jarri genuen eta gero kendu
eta teilak jarri genituen. Sukaldea ere
handitu genuen eta biltegi bat egin
genuen. Izan ere, lehenago txabola
bat genuen kanpoan, baina hori ken-
du, barrukoa handitu eta biltegia jarri
genuen. Nahiko ongi dago. Tximinia

ere beti egon da baina ez zuen oso
ongi funtzionatzen, kea sortzen zen,
baina orain bai, bentiladore modu-
ko bat jarri genion tiratzeko eta oso
ongi ari da funtzionatzen. Bestela ez
dira aldaketa handiak izan. Funtzio-
namendua bera ez da aldatu, urtero
junta berritu egiten da.

Beharbada teknikoki aldatuko zen zerbait? Kontsumoak ordenagailuz sartzeko eta horrelakorik?

Bai eta garbitzekoa ere! Orduan eskuz
garbitzen genuen eta orain lababaji-
llasa badugu (barreak).

Mugimendua badago orduan gaur egun ere?

Nik esango nuke baietz eta kanpo-
koek ere horrela esaten dute, Bera-
mendiko soziedadea bezala gutxik
funtzionatzen dutela, ez da nik esaten
dudalako! 50 urte pasa dira eta fun-
tzionatzen du. Afariak, familia bazka-
riak ere egiten dira, familiak hemen
biltzen baitira. Gazte askok afariak
egiten dituzte, baita astez ere. Jana-
ria ekartzen dute eta horrela ikasten
dute prestatzen (barreak).

Sukaldatzen Beramendiko elkar- tean ikasten dute, beraz! (barreak)

Prezioan ongi ateratzen da, gainera.

Mende erdia ospatzekoa da

Udan ospatu zuten urteurrena bazkari handi batekin. Zikiri jatea egin zuten eta
han bildu ziren 50 bat pertsona: sozioak eta inguruko lagunak. Bazkalondoan
akordeonista bat izan zuten eta arratsalde polita pasa zutela esan digu Inaziok.



Falta direnak gogoan

Ramon Barrenetxea aipatu
du Salak. Berak lagundu zuen
elkarrearen sorreran. Bera be-
zala, beste sozio batzuk hil dira
mende erdi honetan. Hemen
gogoratu nahi ditugu:

Miguel Goñi, Juan Goñi, Teo-
doro Goñi, Lorenzo Goñi, Jose
Maria Aldaz, Carlos Biurrarena
eta Satur Biurrarena.



Miguel Eugi Ziganda,

Petreneko semea (I)

Iturbidean bizi da familiarekin

Ez dakit zer duen Beuntzak, baina ttiki-ttikitatik diot halako miresmena, eta zergatik jakin ez. Hiru urtetan edo gure herritik "urrun" zegoen herri baten izena zela erakutsi zidatelako? Gure alderdian den herririk garaiena delakoz? "Garaia" izateak halako xarma baitu, izan lgoa, izan Beuntza, izan Beruete. Elur geruza lodiak botatzeak markatzen ote du herrien sailkatzea? Ez dakit zergatik, baina, bai, Beuntza beti izan zait erakargarri. Bisita egitea dagokit gaur.

Gaurkoan bertako seme bati egin diogu elkarrizketa. Miguel Eugi Zigandari, hain zuzen, begi argi, aurpegi garbi eta argitsua duen beuntzarrari.

Erran dugu zein etxetako den eta orain zein etxetan bizi den. Gure galderei erantzuteko ez du aparteko oztoporik, ez horixe! Leun eta patxadatsu erantzuten ditu galdera guziak. Eskerrik asko aldeztu aurretik, Migel! Nik hiketan galdetu diot eta berak zuketan erantzun.

Konta zaiguk hire haurtzaroaz zerbait.

1955. urtean sortu nintzen. Gure etxeko familia osoa: Gregorio Eugi Ziganda eta Isidra Ziganda Zarrantz, gurasoak. Senideak, bost gara, hiru neska eta bi mutil. Zaharrenetik gazteenera: Maritxu, Marianjeles, hirugarrena ni, Migel, eta Patxi eta Maria Luisa.

Eta etxean, zer? Nekazalgoa, abeltzaintza...

Nekazalgoa, garia, erremolatxa... eta azienda ere bai, behiak, txerriak... Denetatik izaten zen orduan.

Euskaraz etxean ikasiko huen ba?

Ez, ez, gurasoak eta osaba beren artean beti euskaraz aritzen ziren, baina umeekin, erdaraz. Ez, ez genuen etxean ikasi. Nik zerbait (*zerbait baino gehiago izanen da, Migel!*) herrian, apezarekin, besteei entzunez... eta gero, lanean, batez ere Agustín Argiñarena, kisuskila eta lasterkaria den errazkindarrekin.



Herriko azpiko aldetik, hona Beuntza



Monagillo kontuak. Bada zer kontatu

Monagilloa izan hintzen?

Bai, bai. Zazpi urtetan hasi nintzen, jaunartze ondoan, eta hamalau urteak artio iraun nuen. Orduan utzi nuen; hala tokatzen zen.

Norekin ikasi huen?

Juan Martin Arrizibitarekin hasi eta ikasi nuen. Eta, gero, urte gehientsuenak, Zacarias Berazarekin, Eritzen bizitzen zen apezarekin.

Juan Martin Apezetxean bizi izandu zen?

Bai, **Apezetxean**. Bazuen zerbitzari bat, Marcelina. Nik eramaten nien esnea **Tximonetik**.

Bestalde erran beharko nuke Gaskuen eta Gelbentzun ere meza ematen zuela, bertako parrokiak ere berak baitzaramatzen.

Euskaraz ere Juan Martinekin ikasi huen poliki

Bai, eskolan-eta doktrina ematen zigun euskaraz. Meza ere euskaraz ematen hasi zen. Arrosarioa beti euskaraz.

Haserririk ez zuen piztu? Ordurako, Beuntzako gaztetxoak euskaraz ere oso gutxi zekiteken...

Meza euskaraz emateko liburu batzuk banatu zituen eliztarren artean igande batez (*Vatikano II.a Kontzilio famatuaren ondorengo aginduak ziren, herriko hizkuntzak*

erabili behar zirela, esate baterako). Eliztar gehientsuenok liburuak eskuetan hartu genituen meza segitzeko. Baina aurreneko bankuan esertzen ziren gazte batzuk, 18 urtekoak edo, ez zituzten eskuetan hartu. Eta apeza aldaretik: *har itzazue liburuak*. Eta gazteak kasurik ez. Berriz ere hartzeko erregutu zien. Eta hirugarren aldian borondate txarra ikusirik, elizatik kanpora bidali zituen.

Ba, handik aurrera, hau eta beste, herria Obispadura joan eta honek apeza Marcillara igorri zuten, zigortua. Marcillan urte bat edo bi egin ondoren Gorritira ekarri zuten eta jubilatatu artio egon zen, *Gorritiko apeza* deituko zutena.

Don Juan Martinen aldekorik agertu al zen herrian?

Ez dakit. Bera ere oso independentea zen. Autoa bazuen eta egunero meza eman eta ateratzen zen kanpora eta ez zen gauera artio azaltzen. Urrian arrosarioa-eta herriko neskatek ematen zuten elizan, ez apezak, kanpoan ibiltzen baitzen.

Herrian harreman gutxiegi, kanpoan eginbehar aunitz, gehiegi.

Pena izan zen, euskararen alde egin zezakeen lana Beuntzan, galdu egin zen.

Haur eta mutiko denborako oroitzapenak hemen utziko ditugu eta galderekin segitu dugu Migelekin.

Hamalau urtetan eskola bukatu huen. Etxean gelditu al hintzen lanean?

Urte1 bateren bai, aitari laguntzen; baina bertzetik osaba ere, amaren anaia, etxean baitzen, nire asmoa zen kanpoan lanean aritzea.

Beuntzelarrean hilabete batzuk pasa eta gero Joaquin Goñi Arraratsekin (1) kisuskilarekin hasi nintzen lanean, eta geroztik beti kanpoan aritu naiz.

Entzun izan diat herrian bertan hasi hintzela lanean



▲ Hemen dugu Migel, irrifartsu

Bai, bai, zoritxarrez! **Aramenea (Aimenia)** erre zen, erabat, eta etxea berreraiki behar izan zuten. Hemen hasi nintzen Joaquin Goñirekin, peoi lehenik, kisuskil gero. Lehenbiziko ikasi; gero kisuskil.

Gogoa kisuskilgoan ikasteko, kisuskil izateko

Bai, bai, lanean ari beharra zegoen eta, ikasteko gogoa ere ez zen falta. Erran beharra dago kisuskil ikasten ari ginenean, 16, 17 urtetan, peoiak baino gutxiago irabazten genuela, nahiz lanean gehiago ari behar izan: masa egiteaz at, adreiluak ere jartzen baikenituen. Peoiak zaharragoak ziren, indartsuagoak... guk, berriz, la-



▲ Petrenea, Migelen sortetxea

Soldadutzako zertzelada batzuk

Hogeita bat urtetan soldadu. Izan huen entxuferik?

Bai, hogeita bat urtetan soldadu Almeriara. Entxuferik? Ez, ez. Kanpamentuan erakustun (instructor) Ongi, guardia gutxi, hasieran bakar batzuk, ondoren ez. Etorri berriei erakusten, instrukzioa eta kanpamentuko kontu guztiak. Tiratze kontuetan, cetme-arekin, guretako batzuk ere erakusten aritzen ziren. Ni ez. Ez ziztaidan gustatzen.

Hain urruti izanik, hemengo jenderik ezagutu huen?

Bai, bai, aunitz. Gure kinta joan beharra izan zuenean, destinoetan aldaketak handi bat sartu zuen Gobernuak. Gure aurreko kintetako erdiak baino frankoz gehiago hemen gelditzen ziren, erran nahi baita, Burgosko Kapitaniako kuarteletan (Nafarroa, Gipuzkoa, Errioxa....) Bai, gure kinta joan beharra tokatu zenean, dena aldatu, eta denok Espainiako beste Kapitania batzuetara joan behar izan genuen, Andaluziara, Madrilara... etxetik urrun.

Lagun handiak egin nituen, bat batez ere, Liborio Ariztia Etxeberria, Amaiurkoa.

nean ari bidenabar ikasi behar izaten genuen.

Eta nola moldatzen hintzen etxera egunero etortzeko eta?

Etxera? Ez, ez, aste guzia kanpoan egoten ginen, Joaquin Goñiren etxean, Iruñean. Etxalekun lanean ari edo Berueten lanean ari, beti Joaquinekin bere etxera. Ni, eta Oskozko **Zamargiñeneko** Esteban Ziganda, eta besteren bat.

Larunbatetan etxera etortzeko *La Imoztarra* autobusean etortzen nintzen.

Eta astelehenean, berriz lanera; nagusia etortzen zitzaigun bila.

Hemezortzi urtetan erosi nuen autoa eta aldaketa handi samarra izan genuen, errazago, erosoago ibili ginen.



Txurdan

(1) Joaquin Goñi Arrarats, Leitzako semea baina Berueten etxe bat egin eta urte parrasta batez bertan bizitu zena. Arameneko Gloria labenekin ezkondu zen eta Iruñean bizitu ziren.

Hiztegia

- **Geruza:** capa.
- **Sailkatu:** clasificar.
- **Erakargarria:** atractivo.
- **Abeltzaintza:** ganadería.
- **Kisuskila.** Beste toki batzuetan igeltsero erraten dute.
- **Berreraiki:** reconstruir.
- **Kisuskilgoa:** igeltserozkoa.
- **Adreilua:** ladrillo.
- **Bidenabar=binar** (hitzaren barneko d, b, g, eta abar jaten ditugu. Horrengatik Bidenabartik, binar).
- **Cetme:** Espainiako ejertzitoaren fusil ofiziala.



Egun Ero, Memoriaren Txokoa, Broma Gutxi... irratia bueltan da!

Irailarekin eta ikasturte berriarekin batera, abiatu dugu honezkero Esan Erran irratiko denboraldi berria ere. Irailaren 22an ekin genion Egun Ero saioari, irailaren 25ean Broma Gutxi irratsaioaren 32. saioa emititu zen... baduzue zer ikusi eta zer entzun gure agerkari digitalean!

Irratiko elkarrizketak

Egun Ero saioan egunero izaten dugu elkarrizketaren tarte, eta denboraldi hasiera honetan hainbat gai jorratu ditugu tarte horretan. Esaterako, irailaren 23an, Euskal Herriko ardi-ile moztaille txapelketaren ingurukoez hizketan aritu ginen antolaketa lanetan aritu den Joseba Attard kidearekin. Abadiñoko kanporaketa eta gero, datorren urtean, Zeelanda Berrian

jokatuko den munduko txapelketan ariko da Euskal Selektzioa.

Ardi ile-moztaileak



pide: EmakumeON Emakume Politikarien Foroaren inguruan aritu ginen Idoia Lekuerekin hizketan. Izan ere, saioetako bat Larraintzarren izan zen, eta egitasmoaren nondik norakoak kontatu zizkigun kideak.

EmakumeON



Broma Gutxi

Aurtengo ikasturtean ere, ostegunetan, Tipule Meniere jaunak punk eta hardcore doinuez beteko ditu Esan Erraneko uhinak. Beti bezela, zuzenean biniloak jarriko dizkigu gidariak, eta hausnarketarako tarteak ere hartuko ditu. Irailaren 25ean ekin dio Menierek denboraldi berriari, rat-saioaren 32. atalarekin. Ez da makala! Gogo-

ratu, bi astean behin, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan izaten dela zuzeneko, eta errepikapenak, berriz, larunbatetan 20:00etan eta emisiorik ez dagoenean, ostegunean bertan, ordu berean.

Broma Gutxi 32



Memoriaren txokoa

Dakizuenek, ostiraletan ez dugu ohiko Egun Ero saioa izaten Esan Erranen. Txandakatuz, Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa saioak ditugu ostiraletan. Irailaren 26an lehen Memoriaren Txokoa izan genuen: *Hugo Chavez eta "hemen azufre usaina dago"* izenburua

jarri diogu lehen atal honi. Gogoan duzue Venezuelako presidentek AEBetako George W. Bush presidenteari 'deabru' deitu zionekoa? Bada, efemeride hori erabili dugu Venezuelako presidente izandakoari irratsaioa eskaintzeko.



Memoriaren Txokoa: Hugo Chavez







Berezia

Udako postalak

Pulunpeko postal bildumako parte hartzaileen artean zozketa egin genuen irailaren 25eko Egun Ero irratsaioan. **Erasoko Xabier Iturriotz 'Zapa' eta Madali Carpintero izan dira irabazleak**, Igoako Ostatuan bi lagunendako otordu ederra egingen dutenak. Zorionak biei, eta eskerrik asko parte hartu duzuen beste guztiei ere!



Pulunpe zozketan musutruk parte hartzen duten ostatueta batzuk:



Eskualdeko hainbat ostatur saria eskaintzen dute, doan, Pulunpeko Zozketa Mundialean. Gure hedabideendako izugarrizko laguntza da hori.



Apeztegi Berri
La Asunción, 1
31866 Jauntsarats
Nafarroa
948 50 31 03

POSADA X ARRAITZ

Arraizko Ostatur
La Asunción, 12
31797 Arraiz-Orkin
Nafarroa
948 30 50 03



Aitona Jatetxea - Sagardotegia
San Lorenzo, z/g
31799 Gerendiain
Nafarroa
669 39 62 01



XXI. mende madarikatua

Honelako aipua idatzi zuen pentsalari batek: *Garai zailek gizaki indartsua du sortzen, gizaki indartsuak garai erosoak ekartzen ditu, garai erosoek gizaki ahula dute sortzen, eta gizaki ahulak garai zailak dakartza* (1)

Zirkulua hertsu da eta berriz hasten da, dirudienez, zirkulu bera.

Eta hori horrela ote da? Hala dirudi begirada batean, edo hala izan beharko lukeela Lurrean gizakia bizi den tarte "motxean" ikusiagatik. Hori dirudi, baina aipu, sententzia, atsoitiz guziek, guri egia iruditu arren, ez lukete zergatik egia izan behar. Gutxienez esan dezagun salbuespenik gabea ez daitekeela izan. Edo Mundua osorik harturik bai, baina zatika analizatzen denean, ez ustekoak ere izaten direla, alegia.

Eman dezagun **frankismoaren garaiak** ez zirela onak euskaldunontzat eta euskararentzat. Hori baino egia borobilagorik nekez izan daiteke. Eta garai **zail** horietan Euskal Herrian **Gizaki indartsua** sortu zen. Horrela, gure Herriko seminarioetan eta erlijio orden batzuetan, izan ziren asko eta asko, etsi hartu beharrean, indartsu zutitu zirenak! Garai tzar haietan irmo altxatu ziren beren euskalduntasuna, askata-

sun egarria eta lanerako kemena azalduz, fraidegai edo apezgai izan (Bai, badakit seminarioetatik kanpo ere zenbait sortu zela, baina numero askoz ere ttikiagoan).

Indarka eta lanaren lanez, **garai hobeak** etorri ziren, nahiz erosoak inoiz ere ez. 1960-1985 tarteko urteez ari naiz.

Garai eroso horren ondorioz, **gizaki ahula** sortzen hasi zen (edo sortu genuen), gero eta ahulagoa (1985-2000) eta ondoren **garai zailak** etorri zitzaizkigun, nik esanen nuke XXI. mende guzia izan dugula txarra baino txarragoa.

Bai, jakina, **garai latzak** etorri zaizkigu XXI. mendean, baina ez dakit ohartu ere ohartu garen, oro har behintzat ez. Gainbehera bizian goaz, inoiz baino **gizaki ahulagoa** sortzen: mengela, beratza, nagia, alperra.... Erreusen garaian gaudela esanen nuke, ezinduen aroan. Luze, oso luze doa garai zail hau, oso luze!

Garairik latzeanean bizi gara, baina berriz ere aipatu dezadan, ohartu ere ez gara ohartu oraindik nolako endekapena sortzen ari den herri honetan. Euskal Herria hiltzen ari da gure begien aurrean. Hiltzen eta gu lo.

Hala ere, urrutian, zerumugan edo, bakar batzuk iratzarri eta lanean ari dira. Etsia utzi, eta lanean. **Noiz loratuko ote zaigu gizaki indartsua?**

Gizaki bizkorra, zaildua, langilea sortuko ote da noizbait? Hobeki esan, sortuko ote dugu? Denon esku dago **txorakeriak** utzi eta ekiteko. Denok beharko dugu zerbait egin, lanari ekin.

Zure zain dago iratzartzen hasia den gutxiengo hori. S.O.S. Eman iezaguzu itxaropen apur bat.

Garai zail hauei agur esateko gaur ere topa eginen dut zurekin, ardo beltz, bixi eta frexko horrekin. Zatoz!!!!



Txurdan

(1) Michael Hopf (1832-1873) historialari alemanak idatzia omen. Beste batzuek diote, honen aurretik, Ibn Jaldun (Tunez, 1332-1406) arabiar jakintsuak idatzi zuela.



Kurduak ere nekez ari dira. Kurdistan askatua eskatzen dute Anatolian

Hiztegia

- Aipua:** mención.
- Gizakia:** Ser humano.
- Atsoitiza:** refrán.
- Salbuespena:** excepción.
- Tzarra:** txarra.
- Etsi hartu:** desistir.
- Irmo:** firme, sólido.
- Mengela:** débil, enclenque.
- Nagia:** vago, perezoso.
- Erreusa:** inservible, defectuoso (hemen indarrean egon den hitza).
- Ezindua:** impedido, incapazitado.
- Endekapena:** degeneración.
- Zerumuga:** zeruertza, horizonte.



Errugbi inklusiboa

Maialen Marturet lizasoarra, Munduko Errugbi Inklusiboko txapelketan txapeldunorde

Abuztuan Nafarroako egunkari batean ikusi genuen albistea: Munduko Errugbi Inklusiboko txapelketa jokatu zen Iruñean, eta eskualdeko Maialen Marturet jokalaria bertan parte hartu zuen. Parte hartu bakarrik ez, bigarren postuan gelditu baitzen bere taldea. Galesko selekzioarekin jokatu zuen La Unica taldean jokatzeko duen Marturetek. Bai, ongi irakurri duzue: Galesko selekzioarekin. Xehetasunak lizasoarrak berak eman dizkigu elkarrizketan.



“Errugbi inklusiboan 'suabeago' jokatu zutela pentsatuz joan ginen, eta ez zen inondik ere horrela izan”

Maialen Marturet, baloia eskutan, Munduko Errugbi Inklusiboko txapelketan ▲

Beste ezer baino lehen, azalduko diguzu zer den errugbi inklusiboa?

Errugbiko ohiko partidak dira, baina 'meleak' ez dira jokatzeko. 'Melea' errugbiko jokaldi mota bat da, zortzi jokalaria beste zortzirekin aurka jartzen da eta bultzaketa bat egoten da. Errugbi inklusiboan desgaitasunak dituzten jokalariek eta desgaitasunik ez dutenak jokatzeko dute, denak talde berean. Guztiek batera jokatzeko eta hori ikustaraztea da kirol honen helburua.

Aspalditik egiten al da mundial hau?

Bai, uste dut urte franko badirela, izan ere, duela urte asko Gasteizen jokatu

zen mundiala. Errugbiko mundiala bezala, lau urtean behin antolatzen da errugbi inklusibokoa ere.

Aurten, Iruñean jokatu zen mundiala, atzerritik talde asko etorri ziren?

Bai, bai, errugbi inklusiboko mundiala zen, beraz, mundu osoko herrialdeetatik etorri ziren taldeak. Guk, Galesko selekzioarekin jokatu genuen. Izan ere, mundial horretara selekzioak etor daitezke jokatzera, baina talde moduan ere jokatu daiteke. Adibidez, Iruñeak talde bezala jokatu zuen.

Eta, nondik nora jokatu duzue zuek Galesko selekzioarekin?

Kontua da haiek ez zutela jokalaria nahikorik hona etortzeko. Mundiallean sei partida jokatu behar ziren bost egunetan, oso intentsiboa da, eta uste dut Galesko taldean 16 edo 17 lagun besterik ez zeudela. Errugbian 15 pertsonak jokatzeko dute aldi berean, beraz, aldaketa bakar bat edo bi besterik ez zituzten. Horregatik, harremanetan jarri ziren Nafarroako selekzioarekin, guri galdetu ziguten ea parte hartu nahi genuen, eta gutako zazpi animatu ginen. Zazpietatik bakar batek hitz egiten zuen ingelera ongi, pentsa! Elkarrekin entrenatzeko tarterik ere ez genuen izan, igandean iritsi zen taldea Iruñera, eta astelehenetan partidak hasten ziren. Elkar ia ezagutu gabe hasi ginen jokatzeko.



Galesko selekzioarekin jokatu zuten nafarrek

Zenbat partida jokatu zenituzten, eta nola joan ziren?

NUPen entrenatzen dugun tokian jokatu genituen partidak. Hiru zelai jarri zituzten aldi berean partidak jokatzeke, talde asko baikin. Finalera iristeko sei partida jokatu genituen, bakoitzak hogeitun minutuko bi denbora zituen. Normalean, 40 minutukoak izaten dira denborak, baina, normalean astean behin jokatzen dira partidak, eta hemen sei partida ziren... horregatik moztu da denbora. Lau ekipoz osatutako taldeak antolatu zituzten, lehendabizi taldeko ekipoen kontra jokatu eta hortik final laurdenetara pasaginen. Gero, final erdietara, eta azkenean, finalera. Finala ikaragarri gogorra izan zen. Nik esan nuke aurtengo denboraldiko partidarik gogorrenetako bat izan zela.

Zergatik hain gogorra?

Partida 0-0 bukatu genuen, eta beraz, luzapenera joan ginen. Luzapeneko lehen zatian berriz ere 0-0 egin genuen. Bigarren zatian, azkenean, entseatu gintuzten eta horrela irabazi ziguten. Baina, gainera, aurreko egunetako partidetatik fisikoki leher eginda geunden finalaren egunerako. Gales-Italia izan zen finala, eta egia da italiarrak fisikoki oso ongi zeudela.

Zertan desberdintzen dira errugbi inklusiboko partidak ohiko errugbitik?

'Meleak' egiten dira baina bultzaketarik gabe, baina, bestela, ez nuen desberdintasunik sumatu. Desgaitasun fisiko handiren bat dutenek laguntzaile bat izaten dute beraiekin doana, esaten dizute 'poliki' joateko eta kontuan hartzen duzu hori. Baina, bestela ez da aldatzen, topera jokatzen da, ohiko errugbi partida bat da. Gu, hasieran joan ginen pentsatzen agian suabeago jokatuko zutela, baina iritsi ginenean batek esan zigun: "Topera jokatu beharra dago, bestela ikusiko duzue nolako egurra emanen duguten!". Lasai gindoazen, baina partida hasi zenean harrituta gelditu ginen, oso oso potentea izan zen.

Zer eman dizue mundial honetan jokatzek, zer ikasi duzue?

Uste dut aurreiritzi askori buelta emateko aukera eman digula txapelketa honek. Hasieran joan ginen pentsatuz 'patxanga' bat izanen zela, eta inondik inora ez da horrela izan. Horiek guztiak aurreiritziak dira. Bestetik, errespetatzen ikasteko aukera ederra ere ematen dute horrelako txapelketek. Momentu oso hunkigarriak bizi genituen partidetan, taldean giro ederra sortu zen, errespetuan oi-

“ Azaroan Irlandara joanen gara, Galesko Mari's selekzioarekin partida bat jokatzeraz ”

narritutakoa. Kanpaldi baten moduko zerbait izan zela diogu, ezagutzen ez genuen jendearekin elkartu eta egunero-egunero elkarrekin pasatzen genuen egun osoa. Intentsoa izan zen.

Ezagututako beste jokalariekin harremanim mantendu al duzue?

Bai, batzuekin bai, eta orain, gainera, berriz ere elkartuko gara horietako batzuekin. Izan ere, badago Mari's izeneko selekzio berezi bat Galesen, eta munduko edozein herrialdeetako jendea deitzen diote haiekin jokatzeke. Baina, berezitasuna da bizitza osoan partida bakarra jokatu daitekeela selekzio horrekin. Errugbi inklusiboa da, eta aurten gonbidatu egin gaituzte han jokatzeraz, bost lagun joanen gara hemendik, La Unicako errugbi taldeko hiru eta Iruñako bi. Irlandan jokatuko dugu, azaroan. Iruñeko mundialeko talde baten aurka jokatuko dugu, lagunarteko partida baten modukoa izanen da. Guretzat, sekulako aukera da hau bidaiaitzeko eta beste herrialdeetako jendearekin jokatzeke. Ez nuen inoiz pentsatuko errugbiak aukera hauek emango zizkigunik, are gutxiago talde berdinean jokatzeke Galesko, Ingalaterrako, Irlandako, Belgikako nahiz beste herrialdeetako jokalariekin. Ea hizkuntzarekin nola moldatzen garen!



Ikasturte berriarekin batera, hainbat kanpaina eta ekintza berri abiatuko ditu eskualdeko euskara taldeak

Badira bi urte inguru Ultzamaldeko eskualde zabaleko hainbat herritar euskararen egoeraz kezkatu-rik elkartzen hasi eta Ezpela euskara taldea sortu zutenetik. Geroztik, kontzientziak pizteko eta joerak eraldatzeko lanean ari dira, kanpaina eta ekimen desberdinen bidez. Urteotako ibilbideaz eta aurrera begira eskuartean dituzten proiektuez aritu gara Alazne Fernandez de Muniain taldekidearekin.

Kokatzeko, oroitaraziko diguzu noiz eta zein helbururekin sortu zen Ezpela taldea?

Ultzamaldeko euskara taldea da Ezpela, baditu bi urte inguru elkartu ginela. Ultzamalde osoko ordezkariak hasi ginen elkartzen, eta gaur egun ere nahiko sendo segitzen dugu. Badakizue ezpela arriskuan dagoen landare espeziea dela, gure alderdi honetan ere badagoena,

eta paralelismo hori egin nahi izan genuen izenarekin. Izan ere, gure hizkuntza, kultura eta nortasuna kinka larrian ikusten dugu, eta euskararen eta euskaldunon eskubi-deen alde egin nahi dugu Ezpelatik, gure ttikian eraginez. Beraz, horixe da helburua: gure ttikitik eragitea, mantso-mantso eta hainbat kanpai- nen bidez euskararen aldeko ekin- tzak egitea, jendearen kontzientziak inarrosteko.

Zein irakurketa egiten duzue es- kualdeko euskararen egoerari buruz?

Guk ez dugu deus deskubritu edo diagnostiko berezirik egin, gure ar- tean elkartu eta gogoeta egin dugu honen inguruan. Ultzamaldea ize- neko eremu zabalean, euskararen egoera ez da bera toki guztietan, Basaburuan, Imotzen eta Ultza- man, adibidez. Baina, gauza jakina





da joera orokorra gainbeherarena dela. Eta, fokua ez dugu erabileran bakarrik jartzen, jendearen gaitasun mailan ere arreta jarri beharra dago, baita atxikimenduan ere. Erabilerari dagokionez, argi dago behe-rakada nabarmena dagoela gure herri hauetan, berriki arte nahiko osasun onekoak ziren Imotz eta Basaburuaren ere nabaritzen ha-cia da hori. Azken 20-30 urteetako kontua da, eta datuek eta ikerketek erakusten dute. Badirudi gai hone-kin kezkatzen hacia dela euskal gizartea eta inflexio puntu batean gaudela. Joan den hamarkadetan goranzko joera gertatu da, nolabai-teko suspertzea, baina kontziente izan beharra dugu ez dagoela dena irabazita, inondik ere. Orain, geldit-ze fase batean gaude, eta inarrosi beharra dugu, jendea jakitun izan, gure ttikitik eragin eta olatu berri bat sortu.

Orain arteko ibilbide honetan, zein ekimen mota egin izan dituzue?

Kanpaina indartsuenetako bat Ultzamako eskolan D eredua ezarri zuten lehenbiziko gurasoei omenal-dia egitea izan zen. Ikusten genuen eskolan, eta oro har guraso gazteen artean, gai honekiko interes falta dagoela, eta horregatik, lehenbiziko kanpaina hartan harremanetan jarri ginen euskararen aldekoak diren zenbait gurasorekin. Elkarrizketak egin genizkien, eta zenbait bideo barratu genituen eskualdean. Aldi berean, D eredua sortu zuten horiei ere egin genizkien elkarrizketak, paraleloki egin genituen bi lanketa horiek. Kanpaina biribiltzeko ome-naldi arrakastatsu eta hunkigarria egin genuen Larraintzarko zentro zibikoan.

Geroztik, beste kanpaina batzuekin segitu dugu. Eskolekin zuzenean la-nean ari gara, gurasoei hitzaldiak antolatu ditugu bi eskoletan, klaus-

“ Euskararen eta euskaldunon eskubideen alde egin nahi dugu Ezpelatik, gure ttikian eraginez ”

troekin ere bildu gara... argi dugu eskolak ez duela gure seme-alaben eta jendartearen euskalduntzearen pisu osoa hartu behar, baina bada eragiteko gune ezinbesteko bat. Ohartzen gara eskoletako irakas-le eta zuzendaritza taldeak lanez lepo daudela, mila kontu dituztela, baina gure eskaria da euskararen gaia lehen lerrora ekar dezatela, askotan ahanzturan gelditzen bai-ta. Horretarako gure elkarlana eta prestutasuna ere luzatu diegu.



D eredua bultzatu zuten lehen gurasoak omendu zituen Ezpela taldeak maiatzean

Uda atarian egin genuen azken kan-painan, berriz, Ultzamalde osoko kontzejuetara ohar bat bidali genuen, Udalen laguntzarekin. Ikusten dugu herrietako pestetan euskararen pre-sentzia beherantz doala urtetik ur-tera, eta giroa ere aldatzen ari dela. Oharrean, haien programazioan euskara kontuan hartzeko eskatu eta kartelak egoki euskaratzeko la-guntza ere eskaini genien.

Eta, orain, ikasturte berriarekin, baduzue zerbaite esku artean?

Bai, proposamen bat egin diegu es-kolei, eta datozen asteetan kanpai-na bat izanen da martxan. Astean bitan, UEMAK duela hilabete batzuk argitaratutako 11 bideo labor barra-tzea da ideia, egungo euskararen egoeraz jabetzeko, eta eskolekin batera eginen dugu. Izan ere, uste dugu eskolak pisu handia duela gurasoengan. Bestetik, etorkizun hurbilera begira, gaian aditua den norbait ekartzeko asmoa ere badu-gu, tokiko euskararekin, azentuare-kin eta hikarekin lotura duena. Aritz Gorostiagak Ultzamaldeko zenbait gazte euskaltzaleri egindako elka-rrizketen bideoak ere zabalduko ditugu, eta herriz herri euskaltzale eta euskaldunekin tailerrak egitea ere bada asmoa.

Norbaitek Ezpela taldean parte hartu nahiko balu, ateak irekiak daude, ezta?

Bai, noski! Ezpela talde irekia da, independentea, ez gaude inongo erakunderekin loturik. Hemengoak gara, jende xumea, besterik gabe, gure ttikian eragin nahi dugunak, eta mundu guztia ongi etorria izanen da. Noski, ikuspegi kritikoa dugu eta ahoan bilorik gabe hitz egiten dugu, baina beti ere tonu eraikitzailean. Norbaitek interesa badu, oso-oso ongi etorria izanen da.



Euskal Komiki

eguna, irailaren 29an

Hainbat komikizale eta komikigileren artean abian jarri dugu euskarazko komikigintza sustatzeko eta ikusarazteko ekimen berri hau

Euskarazko komikigintza sustatzeko asmoz, hainbat komikizale eta komikigilek Euskal Komiki Eguna ekimena abiarazi dugu. Aurten egingo da lehen edizioa, urtero egun berean jarraipena izateko asmoz. Eta ekimen hori ospatzeko eguna irailaren 29a izan da.

Olariaga eta Zakilixut, aitzindari

Izan ere, 1977ko irailaren 29an argitaratu zen Olariaga handiaren Zakilixut pertsonaiaren lehen zinta, geroztik milaka zinta izan dituen eta 48 urteren ondoren argitaratzen jarraitzen dena. Eta orduan, 70-80ko hamarkadetan, izan zuten hasiera euskarazko komikigintzaren ekimen garrantzitsu askok (Ipurbeltz, Habeko Mik, Napartheid...), gero beste batzuetan jarraipena izan dutenak (Xabiroi, H28, Tupust!...) eta gaur egungo euskarazko komikien oparotasun garaiotara ekarri gaituztenak. Horrela, iragana, oraina eta etorkizunaren lotura sinbolizatu nahi du egun honek.

Eguna iragartzeko logo edo kartel gisa Erein argitaletxeak urte luzez atera zuen Ipurbeltz aldizkariaren lehenengo zenbakiaren azal mitikoa baliatu dugu, hau ere 1977koa eta Olariagak egina. Egilearen eta argitaletxearen baimenarekin, jakina (milesker bieil!).

Euskarazko komikigintzaren loraldia

Euskarazko komikigintza une oso onean dago, bai argitaratzen diren komiki-kopuruari dagokionez bai horien kalitateari dagokionez. Zenbait datu:

- Xabiroi aldizkarian eta hainbat



komunikabidetan aritzen diren zintagileak ahaztu gabe, **azken urteotan 50 komiki album argitaratu dira urtero euskaraz.**

- Urte bakoitzean argitaratutako komikien heren batean euskal egile bat behintzat aritu da gidoian, marrazkigintza edo kolo-reztatzean.

Adibidez, 2022 urtetik euskal egile hauek hartu dute parte euskarazko komikiren batean, eta 100 sortzaileen mugatik hurbil jartzen gaitu zerrendak: Marko, Aiert Zubigarai *3izkai*, Kote Camacho, Xabier Sagasta, Gregorio Muro *Harriet*, Joseba Beramendi *Exprai*, Amaya Echevarria, Tiago Battesti, Garbiñe Ubeda, Ekaitz Agirre *Garluk*, Mai-






tena Illarramendi, Iñigo Sarasola, Iñaket, Mikel Begoña, Adur Larrea, Unai Iturriaga, Harkaitz Cano, Yurre Ugarte, Ainara Azpiazu Axi, Iñigo Larramendi, Eneko Lizardi, Angel Rekalde, Amaia Ballesteros, Uxue Alberdi, Alex Sanvi, Koldo Izagirre, Patxi Huarte *Zaldieroa*, Joseba Larrañate *Josevisky*, Amaia Carrere, Kike Infante, Dani Fano, Unai Elorriaga, Alex Orbe, Goio Bañales, Jon Mikel Bañales, Pello Varela, Asier Iturralde *Gaston*, Susanna/zuz martin, Iñaki Martiarena *Mattin*, Peio Camara, Iban Zaldúa, Asisko Urmeneta, Iñaki Holgado, Xabier Etxeberria, Martin Etxeberria, Sergio Ortiz de Zarate, Iker Bildosola, Pedro Rivero, Fernando Alonso, Fernando San Vicente, Alex Tello, Julen Ribas, César Oroz, Aritz Ibarra, Paula Estévez, Agustín Ferrer Casas, Igor Sarraide Ussia, Javier de Isusi, Imanol Etxeberria, Noemi Gallego, Begoña Garrido, Oskar Gorroño...; eta Tupust! kolektiboak sortu dituen 3 antologietan parte hartu dute 60 emakume inguruk eta baita pertsona ez bitarrak eta gizon batzuk.

www.komikipedia.eus/

webgunean aurkitu
daitezke azken
hamarkadetan urtez urte
euskaraz argitaratu diren
komikien zerrendak,
egileak, argitaletxeak...

- **Itzulpenetan oinarritutako gai-nontzeko euskarazko komikien artean** Japoniako manga eta komiki frantziar-belgikarra da nagusi, baina badira beste jatorrietako komikiak ere: espainiar estatua, AEB, Britainia Handia, Alemania, Txile, Katalunia, Argentina, Italia, Portugal, Galizia...
- la 30 itzultzaile aritu dira komikiak euskaratzeko lanetan, eta emakumeak dira nagusi, soilik bostetik bat baita gizonezkoa.
- la 20 argitaletxe ezberdinek argitaratu dute komikiren bat



euskaraz. Kopuru aldetik nabarmentzen dira: Ikastolen Elkartea/Xabiroi, Harriet Ediciones, Astiberri, Txalaparta, Elkar, Ikaseldar, Hachette taldea, Nabarralde, Udalbiltza, Herrima, Erroak, Zortziko, Farmazia Beltza, Bang, Mintzoa, Denon Artean... eta autoedizioak ere komiki asko ekarri ditu euskarara.

<http://www.komikipedia.eus/> webgunean aurkitu daitezke azken hamarkadetan urtez urte euskaraz argitaratu diren komikien zerrendak, egileak, argitaletxeak...

Baina oraindik ere jendartearen parte handi batek ez du ohiturarik komikiak irakurtzeko, edo ez dauka euskarazko komikietan dagoen aberastasun handiaren berri. Ekimen honen bidez gure aletxoak jarri nahi dugu euskarazko komikigintza hedatzen laguntzeko, horrela euskal komikiari lagunduz eta jendeari komikiak gure hizkuntzan irakurtzearen plazera ezagutaraziz.

Euskal Komiki Eguna ekimena

IRAILAK 29

**EUSKAL
KOMIKI
EGUNA**

**Euskarazko
komikigintza
ikusgarri egiteko
ekimena**

komikeri.wordpress.com
komikipedia.eus
eibar.org/blogak/e-gorblog
mangaberri.wordpress.com

zale

irakurri,
erosi,
zure
gustuko
komikien
berri eman!

komikigile

Sare sozialetan marrazki,
bineta edo bideoak
partekatu!

**argitaletxe
liburudenda**

eskaintzak..
deskontuak..
ikusgai jarri
komikia euskaraz!

**liburutegi
ikastetxe**

egileekin topaketak
gomendio eta zerrendak
komiki irakurketa saioak

ekimen deszentralizatu honetan
bakoitzak bere ekarpena egin dezake!



2025eko abuztua

2025eko abuztuan gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

Ekaineko jaiotzetan **Alkotzen** Ibai Primo Zigandaren berri eman genuen baina fotografia jartzea atzendu zitzaigun. Hemen duzue oraingoan, nahiz berandu samar izan.



▲ Ongietorri Ibai!!!

Heriotzak:

BASABURUA Igoa

Jose Luis Huarte Altsua, **Karakoetxeko** nagusia, abuztuaren 16an hil zen 89 urtetan.



▲ Jose Luis

Igoa

Martin Olazar Bengoetxea, **Salbadoreneko** nagusia, abuztuaren 1ean hil zen 87 urtetan.



▲ Martin

ODIETA Latasa

Jose Huarte Barberena, abuztuaren 31an hil zen, 94 urtetan.



▲ Jose Huarte

ULTZAMA Gerendiaín

Carmen Agirre Etxeberría, **Etxeberrikoa**, abuztuaren 8an hil zen, 91 urtetan.



▲ Carmen

Iraizotz

Lourdes Garcia Legarrea, **Berasaiñe-neko** etxekoandrea, abuztuaren 4an hil zen 80 urtetan.



▲ Lourdes Garcia

Iraizotz


Maria Socorro Serrano Etsain, **Maizkor-neko** etxekoandrea, abuztuaren 28an hil zen 86 urtetan.



▲ Socorro

Suarbe

Maria Angeles Altuna Eritze, **Toraleneko** etxekoandrea, abuztuaren 1ean hil zen 94 urtetan.



▲ Angeles, elizatarian

“ Beti izanen
zaituztegu
gogoan ”

MANTENTZE · LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





GAZTEEN I. PODCAST LEHIAKETA

Nork har dezake parte?
12 eta 30 urte bitarteko
Ultzamaldeko gazteek

15 eta 30 minutu bitarteko
podcastak, euskara hutsean

Bakarka edo taldeka

Oinarriak:

iparmank.eus eta
amezti.eus gunetan

Lanak aurkezteko epea:

azaroaren 17tik 30era
gazteenlehiaketa@gmail.com
helbidera bidali

Sariak

Lanik onena: **400€**

Lanik originalena: **400€**

Teknikoki lanik onena:

Grabaketak egiteko kit bat

Lehiaketa aurretik podcastgintza ikastaroa egiteko aukera, doanik:

- Urriaren 29an, 17:00etan, Larraintzarko ikastetxean.
- Izen ematea: Urriaren 6tik 17ra, esteka honetan:

